

LHKren txostena: EAEko lan-jaien egutegi ofizialari buruzko Dekretu- proiektua

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
2021 URTERAKO LAN JAIEN EGUTEGI OFIZIALA ONARTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI
BURUZKOA

Aurrekariak

2020ko otsailaren 5ean Kontseilu honen egoitzan Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak prestatutako Dekretu-proiektua sartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021 urterako lan-jaien egutegi ofiziala onartzekoa.

Aipatutako Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak testu hori bidali zuen Kontseilu honetara, Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a artikulua xedatutakoa betez, Kontseiluak dagokion txostena egin dezan.

Gogoeta orokorrak

Dekretu-proiektu honek 2021 urterako Euskal Autonomia Erkidegoko lan-jaiak ezartzen ditu, hain zuzen ere, lan-jai horiek arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuan finkatutako jarraibideen markoan.

Aipatutako Errege Dekretuak Estatuaren eremuko lan-jaiak ezartzen ditu. Autonomia erkidegoek ezin alda ditzakete horietako batzuk. Beste batzuk, berriz, aldatu egin daitezke, eta dagokion autonomia erkidegoak tradizioz berezkoak dituen beste batzuek ordeztu.

2001/1983 Errege Dekretuak autonomia erkidegoei ematen dien aukeratzeko ahalmen hori modu honetara zehazten da:

- a) Martxoaren 19a ala uztailaren 25a aukeratu ahal izatea.
- b) Errege Dekretuko 45. artikulua lehen zenbakiko d) atalean aipatzen diren jaiak (Ostegun Santua, urtarrilaren 6ko Jaunaren Epifania, eta martxoaren 19ko San Jose edo uztailaren 25eko Santiago Apostolua) tradizioz berezkoak dituzten beste batzuek ordeztea.
- c) Astelehenera eramaten diren jai nazionalak autonomia erkidegoetako jaiak ordeztea; horrela gertatzen da egutegi ofizialean ezarritako jaiak igandean suertatzen denean.

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



LHKren txostena: EAEko lan-jaien egutegi ofizialari buruzko Dekretu- proiektua

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



Berariazko gogoetak

Dekretu-proiektuan ezartzen den eta, gero, txostena egin dezan, Lan Harremanen Kontseiluari bidaltzen zaion 2021erako lan-jaien egutegia egiteko aintzat hartu dira aipatutako Errege Dekretuan adierazitako parametroak eta parametro hauek eskaintzen dituzten aukerak.

Dekretu-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko 2021erako berariazko jaitzat hartzen ditu martxoaren 19a, San Jose, eta apirilaren 5a, Pazko Garizumako Astelehena.

Jai autonomiko hauek ezartzeko erabiltzen diren jai nazionalak dira uztailaren 25a, Santiago Apostolua, eta abuztuaren 15a, Andre Mariaren Jasokundearen jai; azken hau, igandean suertatzen denez, astelehenera eramango da.

Beraz, jai nazionalak autonomia erkidegoko jaietz ordezteko aukera erabili egiten da, 2001/1983 Errege Dekretuak administrazio autonomikoei ematen dien ahalmenaren barruan, txosten honetako gogoeta orokorretan azaldu denez.

Irizpena

Lan Harremanen Kontseiluaren Txostenen Batzordea 2020ko otsailaren 13an bildu da, 2021 urterako lan-jaien egutegia onartzeko Dekretu-proiektua aztertzeko.

Aipatutako bileran, Confebasketik, CCOOk eta UGTk izendatutako kideek adierazi dute ados daudela aztertutako dekretu proiektuaren testuarekin.

Beste alde batetik, LAB sindikatuaren ordezkariak adierazi du, aurreko urteetan esan izan duen bezala eta legezkotasun arrunteko gaiak alde batera utzirik, EAEko egutegian ez liratekela jaitzat agertu behar Euskal Herriaren errealitateak arrotz dituen horiek; zehazki, urriaren 12ko Espainiako jai nazionala jaitzat agertzearen kontra dago. Bere ustez, gure erkidegoan lan-egutegi propioa adostu eta erabaki beharko litzateke, non jaiegunak eta ospatzeko arrazoiak Euskal Herriko errealitate kultural, sozial eta politikoarekin bat datozen.

Bilbo, 2020ko otsailaren 13a

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES

